Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1476

2/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, lehendakariarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailearen eginkizunak Emakunderen zuzendari nagusiari esleitzen dizkiona aldi baterako.

Lehendakariaren abenduaren 22/2009 Dekretuaren bitartez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailea kargutik kentzea xedatu zen, defendatzaileak uko egin baitzion bere karguari, eta orain arte ez da izendatu Defentsa Erakundearen beste titularrik.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazioko organoren batean titularrik ez bada edota kanpoan edo gaixorik badago, aldi baterako ordezkoa jar dezake titularra izendatzeko eskumena duen organoak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 65.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailea lehendakariaren dekretu bidez izendatuko da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoak proposatuta.

Horren ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldi baterako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea hutsik dagoen bitartean, María Silvestre Cabrera andreari, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, esleitzea defentsa erakunde horren eginkizunak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Defentsa Erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduaren araudia onartzen duen ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuak zehazten dituzte eginkizun horiek.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1476

DECRETO 2/2010, de 2 de marzo, del Lehendakari, por el que se asignan con carácter temporal a la Directora General de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer las funciones atribuidas a la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Mediante Decreto 22/2009, de 22 de diciembre, del Lehendakari, se declaró el cese en sus funciones de la Defensora para la Igualdad de Mujeres y Hombres, tras haber presentado ésta su renuncia, sin que hasta la fecha se haya nombrado nueva persona titular de la Defensoría.

La Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común establece en su artículo 17 que las y los titulares de los órganos administrativos podrán ser suplidos temporalmente en caso de vacante, ausencia o enfermedad por quien designe el órgano competente para el nombramiento de aquellos.

De conformidad con lo establecido en el artículo 65.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres el nombramiento de la defensora o defensor corresponde al Lehendakari, a propuesta de la mayoría de las y los miembros del Consejo de Dirección de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo primero.– Asignar a Dña. María Silvestre Cabrera, en su calidad de Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, con carácter temporal, en tanto permanezca vacante la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las funciones atribuidas a dicha Defensoría por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y su Reglamento de organización aprobado mediante Decreto 119/2006, de 13 de junio.

Bigarren artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 2an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Artículo segundo.– El presente Decreto surtirá efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.